

## GURASOEN ARTEKO HARREMANAK EUSKALDUNTZEKO EGITASMOA

(Oharra: egitasmo hau proposamena da, lanean hasteko lehen poxpoloa. Herri bakoitzak bere eragileekin adostu beharko du zein den biderik egokiena)

### 1. TESTUINGURUA

Herri euskaldun eta txikiei, arnagune diren neurrian, garrantzi berezia aitortu diegu kuantitatiboki baino, kualitatiboki duten eraginagatik: hizkuntza biziaren babesgune dira. Ipar horri begira jarri nahian, Udal<>ekineko proiektu elkartuen bidez herri txiki horietako euskara teknikari eta hainbat zinegotziren laguntzaz gune horietako beharrak jasotzeko ahalegina egin dugu. Kezka erabatekoa ez den arren, batzuen baitan ezinegon txiki bat ernetzen hasi da: gurasoek euren artean gero eta joera handiago dute erdaraz egiteko, nahiz eta joera hori, gaur gaurkoz, nagusi ez den.

Gurasoen erabilera zein zen jakiteko diagnostiko kuantitatiboa egin dugu bi herritan, Iruran eta Gabirian, kale neurketa eta haurrei egindako galdetegia hain zuzen.

Bi hipotesi genituen:

- Gurasoen arteko harreman hizkuntza erdalduntzen hasi da: besteak beste, herrira bizitzera etorritako gurasoen eraginez.
- Bikote hizkuntza erdara duten familia euskaldunek kalean ere gainerako gurasoekin erdaraz egiteko joera dute.

Datuek ondoko egoera marraztu dute: kale erabilera altua da bi herri hauetan, %80 ingurukoa, baina gurasoen arteko erabilera baxuagoa da bi herrietan, Gabirian %62, eta Iruran %55ekoa. Bikote hizkuntzaren erabilera are eta baxuagoa da.

Herri txikien lantaldeko hasierako bileran egin genuen diagnostikoan jasotako pertzepzio edo usteak bi herri hauetan neurri handi batean betetzen direla baieztatu ahal izan dugu. Pentsatzekoa da salbuespenak salbuespen, joera hau gainerako herri txikietan ere antzerakoa izaten ari dela. Azkenaldian egindako ikerketek (Bengoetxea 2013) hori baieztatu baino ez dute egiten: *Jarduna galduz doa etxe-giroan, eta ele bikoia zabaldu egin da haren ordainean. Eremu formalean eusten zaio erabilerari, baina etxe-giroan beheraka doa erabilera hori. Herriko elkarteetan, aisialdiko taldeetan...herri-giroan eutsi egiten zaio euskarari, baina etxean beherantz doa erabilera hori.*

Herri txikietako lantaldean biltzen garen teknikari eta zinegotziak egoeraren jakitun izanda, joera horri galga jartzeko baliagarri izatea nahiko genukeen egitasmoa lantzeko beharra ikusi dugu.

## 2. HELBURUA

**Gurasoen arteko kale eta etxeke erabilera handitu.**

### 2.1. Helburu zehatza

1. Gurasoak egoeraren jakitun egin.
2. Gurasoek duten ondorengo usteari aurre egin: “Haurrek gaztelania gaizki ikasiko dute arnaguneetan”.
3. Gurasoen artean erabileraren aldeko portaera aktibatu

## 3. HARTZAILEAK

Herri txikietako guraso euskaldunak, 25-50 urte bitartekoak.

## 4. ESTRATEGIA

Gurasoen etxeke eta kaleko erabileran eragitea ez da kontu erraza izaten, esparru informala berruzantzen sartzeko baitira harreman horiek. Informalak izan arren, ordea, sekulako eragina dute gizarte ohituretan, euskararen bizindarrari buruzko informazio erreala ematen baitigute.

Sarritan, egoera jakin bati buruzko informazioa emateko orriak, bilerak, hitzaldiak edota tailerrak antolatzen ditugu hartzaileak gai horrekiko kezkarik ba ote duen jakin gabe, eta interesa izanez gero, interesa zertan duen jakin gabe. Oraingo honetan lantaldeak beste estrategia bat erabiltzea hobetsi du:

- Herriko haur eta gazteek transmitituko dute mezua era informalean eta giro hurbilean.
- Ekintza ludikoak eta informalak erabiliko ditugu lehen fase batean, formatu ezberdinekoak gainera: bideoak, antzerkiak, kafe tertulioak...
- Hainbat eragileren inplikazioa bilatuko da: eskola, arnaguneetako pertsonaia ezagunak, kultur elkarteak, udala, Udal<>ekineko lantaldea, e.a.
- Komunikazioa ziurtatu. Gipuzkoako herri txiki askotan kezka hau dagoenez, herri txikien lantaldean egindako diagnostiko eta esku hartzearen berri emango du lantaldeak Aldundian herri guztientzako aurkezpen baten bidez.
- Herriko lan egitea adostu dugun arren, etorkizunera begira, herrietan eragiteaz gain, eskualde eta Gipuzkoa mailan eragiteko beharra ikusten dugu, erabilera arau eta joera hauek herri koskorragoetan ere gertatzen baitira, eta gainera, gauza jakina delako herri txikiek, gutxi asko, inguruko herrien kultur eta hizkuntza jokamoldeak bere egiten dituztela denboraren poderioz.

## 5. EKINTZAK.

### 1. IKASTETXEEKIN BILERA EGIN.

Egin asmo duguna eskoletan aurkeztuko dugu eta elkarlanerako bideak adostuko ditugu: bideorako, kafe tertuliaren gonbitea egiteko, guraso elkartearen bultzada jasotzeko kafe tertulian (proposamenak eginez), eta gurasoek adosten dituzten ekintzetan bidelagun izateko.


### 2. *Aita/ama gauza bat dut zuei esateko BIDEOA EGIN.*

Bi gai ezberdin landuko dira bideoan, herri bakoitzean grabatuko den bideoa, batetik; eta pertsonaia ezagunei grabatuko zaien bideoa bestetik.

**1.1. Herriarren bideoa:** herriko hainbat laguni (tartean herriko haur talde bati) herri euskaldun batean bizitzearen abantailak zein diren galdetuko zaie, eta mezu horretan, **umorez** (modu erasokorrean har litezkeen hitzak saihestuko ditugu), hobetzeko zer duten aipatuko dute. Galderak hauek izan daitezke:

- Herri euskaldun txiki batean bizitzearen abantailak. Aipatu 3 alderdi on.
- Herriko giroa: nolakoa da?
- Herriko giroa nolakoa izatea nahi zenuke?

Bukaeran galdera honekin zirikatuko ditugu: *“haurren eta gazteak plazan daudenean elkarrekin solasean, hitz egiten 9 aldiz entzun dezakezu “BAI” hitza eta behin “SI” hitza. Gurasoak elkarrekin daudenean, berriz, “BAI” 6 aldiz entzungo duzu, eta “SI” 4 aldiz (Gabirian). Iruran erdi eta erdi 5 “BAI” ETA 5 “SI”*



*Zer esan nahi diezue haurrei? Gazteei? Eta gurasoei?”*

Bideoaren amaieran mezu hau bidali/idatziko dugu: *aita/ama zein da zuen erantzuna? Esan, esan...*

**Baliabideak:** Herri bakoitzak bere kasa moldatu beharko du bideoa egiteko. Gabiriakoek gidoi bat proposatuko dute.

**1.2. Pertsona ezagunen bideoa:** Irura, Gabiria eta ikerketan ateratako ondorioak aipatuko dizkiegu pertsonaia ezagun horiei, eta galdera bera: *“haurren artean 10 elkarrizketatik 9 dira euskaraz; gurasoen artean 10etik 6 dira euskaraz (Gabirian), 5 (Iruran). Zer esan nahi diezue haurrei? Gazteei? Eta gurasoei?”*

Nori egin: 4-5 pertsona (andrazkoak eta gizonezkoak). Aitziber Garmendia, Iñaki Murua, Jakoba Errekondo, Aimar Olaizola, Andoni Aizpuru, Maider Unda, Eizagirre (txirrindularia), Iker Galartza...

Mezua: asko dira arnaguneetan jaio eta gure artean ezagun diren pertsonak. Pertsona hauek euskaraz ondo moldatzeaz gain, bizitzak hala eraginda, beste hizkuntza batzuetan ere egin behar izaten dute une eta toki jakin batzuetan. Uste izatekoa da pertsona hauek, jardunaren jardunaz, beste hizkuntzetan ondo moldatzeko gauza direla, eta bizitzan zehar trebatuz joan direla. Elebitasuna eta eleaniztasuna ona dira, baina norberaren izatea eta ama hizkuntza oinarri izanik. Hauek egin dute elebitasunerako bidea. Gaur egungo haurrek ere egingo dute. Pertsonaia ezagun hauek hizkuntzekin izan duten esperientzia hori ezagutzera ematea da gure helburua.

- Nola egin dute elebitasunerako bidea? Zein esperientzia izan dute eta zein mezu eman nahi diete “arduratuta” dauden arnaguneetako guraso horiei?
- Hizkuntzari dagokionez, nolakoa zen zure herria orain dela 20 urte? Kanean, eskolan, parkean, dendetan eta etxeetan...
- Nolakoa da zure herria orain?
- Hizkuntzari dagokionez hemendik 20 urtera nolako herria izatea nahi zenuke? (Nahi bada irudiekin jolas egin liteke. 10 irudi eman eta, orain eta etorkizuneko herria adierazteko erabil dezatela)

**Baliabideak:** [bideo bat grabatu herri guztietan BIDEO bera erabiltzeko.](#)

## **2. BIDEOAREN EMANALDIA EGIN herritarren aurrean.**

Herritarrak deia egingo diegu bideoaren emanaldira etortzeko. Gonbitea ikastolako haurrek egingo diete gurasoei gonbite-txartel baten bidez. Gainerako herritarrei udalak, elkarteren edo batzorderen batek egingo die.

Aretoan bideo emanaldia egingo da eta bideoaren bukaeran haurrek gurasoen erabileraren gainean duten iritziaren atala botako dugu. Bideo emanaldiaren bukaeran aipatuko dugu guraso euskaldunentzako dela kafe tertulia.

## **3. LEHEN KAFE TERTULIA GURASOekin**

Bideoaren ostean, gurasoak kafe tertulia egiteko bilduko ditugu. Helburua bideoan emandako iritzi eta neurketetako informazioaren gainean eztabaidatzea izango da. Labur bada ere, neurketen eta galdetegiaren emaitzak emango zaizkie, bai eta Xabier Bengoetxearen txostenean agertzen diren 3 ideia nagusiak. Horren ostean taldeka bilduko ditugu, gaiarekin zerikusia duten gaiak edo “esaldi” batzuk banatuko dizkiegu (bideoan edo soziolinguistikako materialaren artean agertzen direnak era errazean idatzita) eta taldeka horiek landuko dituzte.

Kafe tertulia girotzeko kafea, pastak eta musika ipiniko ditugu.

Tertuliaren ostean, ondorioak bildu eta beste kafe tertulia baterako deia egingo diegu.

[Baliabideak: Kafe tertulia girotzeko kafea, pastak eta musika ipiniko ditugu. Gurasoak kafe tertulian dauden bitartean umeentzako jolasak prestatuko dituzte herriko gazteek/ludotekak...](#)

#### **4. BIGARREN KAFE TERTULIA GURASOekin**

Bigarren saio honetan gurasoekin batera ekintza-plana landuko da. Aukera sorta bat emango zaie (hizkuntza portaera lantzeko tailerrak UEMA, EBETE, Zergatik ez, Telp...), bakarrizketa gauak, hitzaldiak, “nirekin euskaraz”en tankerako kanpaina bat lantzea, guraso batzordea osatu, bideoa/antzerkia egitea, talde bat sortzea, kanpainak, e.a.)

Erabakitako ekintza planaren ostean, haurrei bidaliko dieten mezua landuko dute: ***seme-alaba zerbait esan nahi dizut.***

Bukaeran egoera edo haurren pertzepzio hori aldatzeko ZER EGINGO DUTEN definitzera iritsi behar dugu. Hau da, tertulia amaitu aurretik definitu beharko dugu zer egin nahi duten gurasoek hizkuntza ohiturak euskalduntzeko.

Ekintza plana eurekin batera lantzea jo behar dugu, ahal dela saihestu behar dugu guk eurentzako “zerbait” antolatzea, eurak motore izatea bilatu behar dugu.

#### **5. GURASOEN EKINTZA PLANA GARATU: Seme-alaba zerbait esan nahi dizut.**

Kafe-tertulian adostutako ekintzak aurrera eramateko baliabideak eta planifikazioa landuko ditu euskara teknikariak/zinegotziak.

#### **6. ANTZERKIA EGIN**

2014 edo 2015ean eskolako haurrek gurasoak zirikatu, zoriondu edota sumatu duten aldaketa irudikatzeko antzerkia egingo dute.

EKINTZEN KRONOGRAMA



## 6. BALIABIDEAK

Udal<>ekineko lantaldeko bilerak

Herriko ikastetxe eta gazteekin izan beharreko bilerak

Bideoa egiteko baliabideak (bideo tresna, produkzio lana, grabaketa lana) eta proiektatzeko tokia.

Kafe tertulia egiteko lekua eta pastak.

## 7. ADIERAZLEAK

Gurasoak egoeraren jakitun egin.	Gurasoen %60ak ikustea BIDEOA. Gurasoen %40ak parte hartzea kafe tertulian
Gurasoek haurrek gaztelania gaizki ikasiko duten usteari aurre egin.	Gurasoen %60ak ikustea BIDEOA eta gai hau lantzea eta argumentatzea kafe tertulian.
Gurasoen artean erabileraren aldeko portaera aktibatu	Kafe tertulian 5 proposamen egitea. Proposamen bat lantzeko konpromisoa hartzea gurasoek.